

Balioetan heztearen garrantzia

Familia heziketaren funtsezko helburuetako bat, seme-alabak printzipio eta balioetan heztea da; modu horretan seme-alabek egoera desberdinei aurre egiteko, aldaketak barneratzeko eta aurre egin beharreko arazoetarako konponbide egokiak bilatzeko gai izatea lortuko dugu. Horretarako, nahitaezkoa izango da familia-testuinguru egoki bat eratzea, jarraian azaltzen diren elementuak barne hartuko dituenak:

1. Maitasuna. Umeei, maite dituztela entzuteaz gain, hori adieraziko dizkieten gurasoen keinuak ere jaso behar dituzte. Gurasoek diren bezala onartzen dituztela adierazi behar die eta segurtasuna eskaini. Hori da behar bezalako garapena lortzeko oinarria.
2. Adierazpen-heziketa. Gurasoek jakin behar dute euren autoritatea nola erabili, autoritate hori haurrak hezteko beharrezko erantzukizuna eta betebeharra delako. Autoritatea, modu arrazoituan garatu beharko da seme-alabak txikiak direnean eta modu parte-hartzailean aldiz, haiek nagusiagoak direnean.
3. “Tratu ona”. Tratu txarrei kontrajarrita, tratua atsegina izango da bai moduetan eta bai konstruktiboa edukietan.
4. Ardura eta komunikazio-maila egokia. Seme-alabekin eta bikotekidearekin konpartitzeko denbora hartu behar da, hau da, haiekin egoteko denbora-kalitatea eta kantitatea (beraien iritziak, arazoak eta beharizanak entzuteko prestutasuna agertuz).

Balioak seme-alabei egoki transmititzen zaizkie, baldin eta...

- Modu koherentean jarduten bada. “Eskatzen zaiena” eta “egiten” dugunaren artean koherentzia azalduz.
- Eredu demokratikoa praktikatzeko bada. Guraso zorrotz eta maitakorrek, seme-alabak hezi nahi dituzten balioetan hezten dituzte; seme-alaben erakuntza errazten eta ahalbidetzen dute.
- Pazientzia lantzen bada, besteekiko agertuko dugun tolerantzia eta errespetu handiagoa izatea eragingo du.
- Iritzi propioak adierazten badira eta familiaren beste kideei eurenak adierazten uzten bazaie.
- Arauak eta mugak familia-testuinguruan ezartzen badira. Horrela, seme-alabak gizartean elkar bizitzen ikasten dute, segurtasuna emateaz gain.
- Barkamena eskatzen bada, okerren bat eginez gero.

- Seme-alaben autoestimua sustatzen bada, ondo egiten dituztenak goraiatuz. Euren buruak maitatuak, baloratuak eta errespetatuak sentiaraziko ditugu.
- Seme-alabei aktiboki entzuten bazaie.
- Familiaren elkar bizitzari denbora eskaintzen bazaio.
- Eredu bagara.
- Bikotearekin erabakiak partekatzen badira, gatazkak saihestuz edo horiek agertzen direnean egoki ebatziz.
- Seme-alabei "bestearen ikuspuntua ikustarazten" laguntzen bazaie.

Laburpena

Balioen transmisioa, etengabeko familia-komunikazioan aurkitzen da. Horretarako, besteak beste, seme-alabekin egoteko denbora hartu behar da. Denbora tarte horretan, gurasoek koherentzia erakutsi behar dute, entzute aktiboaren eta errespetuaren bitartez. Horrezaz gain, arauak eta mugak ezarri beharko dituzte familia-dinamikaren barnean. Era berean, beharrezkoa da ez ahaztea balioen transmisioa, eraikuntza eta barneratzea egin beharra etengabea eta nahitaezkoa dela.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia